

Abarrak

Aita homosexuala berreraikitzen

Fun home, Alison Bechdel, 233 orrialde.

Hotza. Hitz hori aukeratuko nuke Alison Bechdelen *Fun home* nobela grafikoan narratzaileak darabilen tonua deskribatzeko. Beharbada liburu autobiografikoa izateak eragina izango du, nor bere buruarekin distantzia neurtu beharrak-eta. Irakurle honi ordea, hoztasuna narrazioa gauzatu ahal izateko hautu teknikoa baino, estetika baten adierazle iruditu zaio.

Pennsylvaniako (AEB) Beech Creek herri txikian jaioa, Bechdelen aita institutuko irakaslea eta herriko ehortzetxe-kozendaria zen. Etxe viktoriar batean bizi zen familia eta aitaren zaletasuna –obsesioa– eraikin hori dekoratzea zen. Kamioi batek harrapatuta hilko da aita. Gertakari hori da kontakizun osoaren ardatza: behin eta berriro puntu horretara itzuliko da narratzailea, aita istripuz hil ote zen ala bere buruaz beste egin zuen jakin nahian.

Istorioak aurrera egin ahala izango dugu, Bechdelekin batera, bere aitaren sexualitate ezkontuaren berri: soldadu izan zenean beste mutil batekin izandako harremana edo bere ikasle batekin izandakoa, besteak beste. Familia heterosexual tradizionalaren maskarapean dena, noski.

Aita berrezagutzeko lan horretan bere burua ere aurkituko du narratzaileak; lesbiana da Bechdel, baina unibertsi-

tate garaian izandako zalan-tzen ondoren familiarekin garbi hitz egin zuen horretaz; aitak inoiz ez zuen pausoa eman –hil aurretik idatzi zion gutun batean “ez naiz heroi bat” esan zion–.

Lan autobiografikoa dela esan dut hasieran. Garrantzitsua izan daiteke hori liburu eskutan hartzean, baina ez da inolaz ere komiki hau bereizten duen ezaugarri bakarra. Esango nuke hiru zutabe nagusik ematen diotela indarra Bechdel formulari: pertsonaien pose hieratikoa oso ondo ezkontzen da narratzailearen izotzarekin; kolore zuri eta urdin argiek asko laguntzen dute protagonistak Steven Seagal baino apati-koago irudikatzen; eta saltsari azken ukitua emateko, literatura garaikideko –Camus, Joyce...– eta mitologia klasikoko erreferentziak. A, eta umore beltza, noski. Denak ere familiaren giro artikoa irudikatuz bideratutako aukerak dira eta liburu osoari batasuna ematen diote.



GORKA BEREZIARTUA

Jaso astero ARGIA etxean

Abantaila ugari izateaz gain, Harpidedunen Guneko kide ere izango zara

INDEPENDENTZIA
ASTERO IKUSTEN DA

Izen deiturak:

Helbidea: Posta kodea: Herria:

Herrialdea: Jaioteguna:

N.A./I.F.K.: Tel./Faxa: e-posta:

Ordainketa mota: Bankuz
 Talotiez
 Transferentziaz KOMUNIKAZIO BIZIAGO S.A.L-ren kontura (ARGIA): 3035 0036 14 0360048647
 Bankuz ordaintzekoek betetzeko soilik

Banku edo aurrezki kutxa:

Titularra: N.A./I.F.K.:

Titularren helbidea: Titularren telefonoa:

Entitatea: _____ Sukurtsala: _____ K.D.: _____ Kontu zenbakia: _____

Data: Sinadura:

Harpidetza-orri hau zure datuekin bete eta helbide honetara bidali: 142 P.K. / 20160 Lasarte-Oria –Gipuzkoa–

Aukeratu ongietorri oparia



“Kirolaz badakit”
mahai-jolasa



“888 txiste”
liburua



“Txoriak txori”
lamina



%25eko beherapena
ikasle bazara

Urtebeteko harpidetza:
2008ko prezioak

135 € Hego Euskal Herrian
165 € Ipar Euskal Herrian

ARGIA